

BITTER ERDIA

Euskal auziari irtenbideak bilatzeari buruz, bertako politiko, bakezale, irakasle eta enparauei aditzen diedanean kaka nahastu besterik ez dutela egiten iruditzen zait maiz. Ez borondate txarrik daukatelako (ez beti behintzat), konponbide posiblea martxan jartzen hasteko denborarik gabe, haren porrota azkarregi asumitzen dutelako baizik. Bake bidea gatazka politikoarekin lotu behar da gaur, bihar ez. Eskubideak eta proiektu politikoak gauza ezberdinak dira gaur, atzo ez. Euskaldunon arteko gatazka da hau orain, Euskal Herriaren eta Espainiaren artekoa gero, Frantziar ere akordatzen dira geroago. Independentzia, autodeterminazioa, autonomia, terrorismoa, indarkeria, zapalkuntza, xenofobia, hilketa, garbiketa, genozidioa, askatasuna, justizia, eskubideak... bakoitza bestearen aldean ongi kokatu ezinik ibiltzen dira, diskurtsoak sugeak larrua baino maizago aldatuz.

Ipar Amerikako estatubatuarrei adimen sinpletasuna leporatzen zaie maiz. Baina horretxek eta beren pragmatismo ezagunak arazoen muinera zuzenean jotzeko gaitasun apartaren jabe egiten ditu askotan. Dave Bieterrek eta Pete Cenarrusak geure *adituen* pajeok aintzat hartu balituzte ez zuketean proposamen argirik egitea lortuko. Baina lortu dute eta bete-betean asmatu: bortxakeriak amaitu, bake prozesua abian jarri eta autodeterminazio-eskubidea ezagutu. Hiru puntuotan aurrera egitea ez al da ba auziaren konponbidearen giltza? Baina, kasu, hiru puntuok ez dira bakarka edo erdizka onartzeko modukoak. Berehala hasiko zaizkigu hemengo koadrillakoak ‘*bieter erdi bat*’, ‘*marianito (raxoi) bi*’, ‘*nik baltza*, baina *Viña Ardanza, e?*’, ‘*Pellok Zenarruza*’, ‘*Pete ala Idoia?*’ berriz ere kaka nahasten. Auzia uste baino sinpleagoa da eta soluzioa ere bai. Eta hala erakusten du izen bitxia daukan euskal-amerikarren ekimenak: *Joint* (=porru, kanuto) *Memorial* (=oroigarri, oroitarri, hildakoei eskainitakoa bereziki). Ea hau ere ez diguten berehalakoan erretzen.